



Emakume batez ari garela, nola adierazi?

- Alkatea ala alkatesa ?
- Aktorea ala aktorea ?
- Alarguna ala alarguntsa ?
- Lehendakaria ala lehendakarisa ?



Euskaraz ez dago genero-markarik, salbu eta hitanoko adizkietan (**diat/dinat**).



● Nolanahi ere den, ekialdeko zenbait euskalkitan feminizatu egiten dira zenbait izen -(T)SA atzizkiaren bitartez:

- Jentilizioetan: *iribarnetarsa, mauletarsa, xiberotarsa*.
- Ofizio batzuetan: *artzaintsa, errientsa, ostalertsu*.

-ESSA atzizki erromantzea dugu oinarrian, luzaroko hizkuntza-ukipen bortitzaren ondorioz zenbait euskalkitan baliatua.

- «Emakunde» erakundeak, ordea, baztertua du erabilera hori bere *Euskararen erabilera ez-sexista* liburuan.



- Gisa berean, Zuberoan emankorra den arren, Euskaltzaindiak ere baztertu du mailegutza-bide hori.

Dena dela, -(T)SA atzizkia daramaten zenbait forma onartu ditu euskararen akademiak bere hiztegian:

Noblezia-tituluak	Iparraldeko usadioan finkatuak	Markarik gabeak
<ul style="list-style-type: none"> artxidukesa baroisa bizkondesa dukesa kondesa markesa printzesa 	<ul style="list-style-type: none"> artzaintsa <i>Ipar.</i> buhamisa <i>g.er.</i> buruzagisa <i>Zub.</i> errientsa <i>Ipar.</i> kantiniersa <i>Ipar.</i> ostalertsia <i>Ipar.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> abadesa alarguntsa jainkosa profetesa

Hortaz, hona zenbait erabilera egoki:

- Ana Iriarte Urraulbeitiko alkatea
*Ana Iriarte alkatesa
- Alkate andrea
*Alkatesa
- Itziar Ituño aktorea
*Itziar Ituño aktorea
- Emakumezko aktore onenaren saria.
*Emakumezko aktorea onenaren saria.



Hortaz, hona zenbait erabilera egoki:

- Alarguna da gure amona.
- Andre alarguna
- *Alargüntsa niz eta bihotza tristerik*
Ene senarra beita gerla hontan hilik.
René Cassin pastoralara, J.L. Davant, 2013
- Ursula von der Leyen Europar Batasuneko lehendakaria.
*Ursula von der Leyen lehendakarisa
- Lehendakari andrea/anderea *Ip.*



Gehiago jakiteko:

Ahotsak (2011-9-9). "-sa atzizki femeninoari buruz". Elkarrizketatzaile: Alex Artzelus; hizlari: Jean-Louis Davant. [[hemen](#)]

Barquín, Amelia (2008). "-SA bukaerako femeninoak", in *Euskararen erabilera ez-sexista*, Bilbo, Emakunde, 28.-29.

Davant, Jean-Louis (2006). "Emaztesa?". *Le journal*, 2006-03-07 [[hemen](#)]

Muruaga, Begoña (1993). "Sexista izango ez den euskararen erabilerarako gomendioak". *HABE* (223), 12.-14.

Padilla-Moyano, Manuel (2019). "Mailegatze morfologikoa eta generoa euskaraz". *Fontes Linguae Vasconum* (127), 229.-248.